

EAEko IRAKASLEAK

LEKUALDATZE-LEHIAKETA

Gaur irakaskuntza ertaineko kidegoan, behin betiko onartuen eta baztertuen zerrenda argitara emango dute. Administrazioak jakinarazi digu astelehenean behin-behineko destinoen esleipena argitaratzeko asmoa duela.

EPE 2022. EGONKORTZEKO LEHIAKETA-OPOSIZIOA ETA OHIKO LEHIAKETA-OPOSIZIOA

Barematutako merezimenduen behin betiko puntuazioak eta oposizio-fasean izangaiek guztira lortutako kalifikazioak argitaratu dituzte.

ADINAREN ARRAZOIARENGATIK IRAKASTORDUAK MURRIZTEA. BITARTEKO LANGILEENTZAT (INTERINOAK)

STEILASek egindako salaketei esker, irailean bitarteko langileentzat deialdia argitaratuko da. Ordezko irakasleek ikasturte hasierako esleipenetan 2024-2025 ikasturterako lanpostu osoa lortuz gero, adinagatiko irakastorduak murrizteko aukera izango dela adierazi dute ohar baten bidez. [Lotura](#).

HAINBAT ZERBITZU-EGINKIZUN

Osasun arrazoiengatik

Onartuen eta baztertuen behin betiko ebazpena argitaratu dute. [Lotura](#).3

IRALE, HPB eta Hezkuntza Ikuskaritza

Behin-behineko ebazpenak argitaratu dituzte. Erreklamazioak maiatzaren 29ra arte, egun hori barne.

EAEko IRAKASLEAK ETA LAN-LEGEPEKO HEZITZAILEAK

Prest_Gara 2024-2025

Hurrengo ikasturterako deialdia argitaratu dute. [Lotura](#).

Lehen eskaera-epaia: maiatzaren 22tik ekainaren 5era arte.

LAN-LEGEPEKO IRAKASLEAK ETA HEZITZAILEAK

ERRETIRO PARTZIALA

Gaur, maiatzak 24, Lan-legepeko irakasle eta hezitzaile finkoentzako erretiro partzialaren jarraibidea argitaratzea aurreikusten du Hezkuntza Sailak. Adi ondorengo orduetan.

**EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA!!!
ORDIZIAN, EKAINAK 2**

www.steilas.eu